

GAKO EKONOMIKOAK

- Inflazioak, pixkanaka indarra galtzen ari dela horrek indartzen duen Interes tasen gailurra hurbil egon daitekeenaren ideiak, inbertitzaileen konfiantza berpiztu du.
- Hilabete oso ona izan da errenta aldakor orokorarentzat.
- Epe luzerako interes tasen errentabilitateen jeitsiera eta zor korporatiboaren diferentzialen hobekuntza.
- Euroaren balioa suspertzen jarraitzen du dolarrekiko.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Merkatuak urteko lehen hilabetea irabazi handiekin itxi dute. Historikoki negatiboa izan den 2022aren ondoren. Nahiz eta oraindik ziurgabetasun handia dagoen banku zentralen interes tasen igoerek izan ahal duen eraginaz hazkudean. Inbertitzaileek oinarritzat hartu dute interes tasen gailurra gertu dagoela, inflazioaren moteltze seinaleen aurrean. Zentzu horretan, Ameriketako Estatu Batuetan, datu garrantzitsuak argitaratu dira, KPIa esaterako, desazeleratzen doanez (bai indize nagusia bai azpikoa), eta soldaten hazkudeari nolabait eutsiz, FED.arentzako presio txikiago bat bezala interpretatu dira. Bide honetan, Kanadako Bankuak, tasen gorako doikuntzan atsedendia iragarri zuen lehenetako bat izan da. Aldiz, Eurozonan, KPI moderatuagoa argitaratu zen eta horrek BCEk oldarkortasun gutxiago politikoa monetarioa eramango zuenaren ideia indartu zuen. Halaber, enpleguaren martxa onak, energiaren prezioen egonkortzeak eta haren eskuragarritasunak, ahalik eta eszenatokiak okerrera urruntzen duten, eta Txinako ekonomiaren Post Covid berriro irekitzeak, katalizatzaile garrantzitsuak izan dira merkatuen konfiantza berpizteko. Ala ere, badirudi egungo krisi ekonomikoa hondamendi ekonomikoko labor gisa pasa genezakeela, batez ere, inflazio maximoa atzean utzi genezakeelako ustea sendotzen bada. Izan ere, badirudi Banku Zentralek alertan jarraitzen dutela eta ekonomia kaltetzearen inguruko beste alderdi guztien gainetik prezioen kontrolari lehentasuna emango diotela adierazten duten mezuak igortzen jarraitu dute, gero eta baikorragoak diruditen merkatuen aurkako pultsua dirudienean, eta ekonomiaren lurreratze leun bat izan zitekeenaren itxaropenak hoztu. Testuinguru honen erdian, Nazioarteko Moneta Funtzaren (FMI) azken txostena eman zen ezagutzera. Erakundeak, oraindik ere inflazio maila altuak adierazten baditu ere, munduko ekonomiak hobekuntza sintoma txikiak islatzen dituela uste du eta laster aurreikusten du inflexio puntua. Ondorioz, 2023rako munduko ekonomiarako hazkudea haundiago bat ikusten du, % 2,9 hazkudea iragazkiz.

ERRENTA ALDAKORRA

Lehen hilabetea oso ona izan da munduko poltsetan. Urteko laugarren hiru hilabetearen emaitzen lehen argitalpenek erakutsi dute, batez beste, enpresak ondo ari direla jasaten inflazioa kontrolatzeko banku zentralek egindako interes tasen igoera handia. Adibidez, 22 urte bota behar ditugu atzera Ibx35arentzat urteko lehenengo hilabete hain ona ikusteko (+% 9,7) eta ez dago erregistririk Eurostoxx50 indizeak (+% 9,7) iraganean urtarria honetakoa baino jokaera hobea izan duenik. Estatu Batuetan, bitartean, indizeek ere aurrera pauso handiak eman dituzte; S&P500k (% 6,1) eta Dow Jonesek (% 2,8), baina Nasdaq-ek izan du hobekuntza handiena, hazkudearen balioek eraginda, ia % 11 igo baita, urtearen hasiera honetan lider izan diren teknologikoez bereziki. Haiekin batera, bankuak egon dira irabazien buruan. Aldiz, orain arte defentsiboagoak izan diren enpresak, elikadura, farmazeutikoak edo utilitateak, adibidez, atzean geratu dira. Munduaren gainerako tokietan, Japoniak % 4,7 irabazi zuen eta, emergenteak, aldiz, oro har, % 1,64 igo ziren.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2023ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.034,00	EUR	%9,78	%9,78
EUROSTOXX-50	EUROPA	4.163,45	EUR	%9,75	%9,75
S&P-500	AEB	4.076,60	USD	%6,18	%6,18
DOW JONES	AEB	34.086,04	USD	%2,83	%2,83
NASDAQ 100	AEB	12.101,93	USD	%10,62	%10,62
NIKKEI-225	JAPONIA	27.327,11	JPY	%4,72	%4,72
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.031,50	USD	%7,85	%7,85
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.785,00	EUR	%7,00	%7,00

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Nahiz eta urtarriaren bukaeran datu makroekonomiko batzuen argitarapena espero zena baino hobekia izan ziren eta banku zentralen adierazpen batzuk epe luzerako interes tasen nolabait igoera eragin zuten, urtarriean, oro har, jaitsi egin dira, inflazioaren zifren moderazioak eta tasen igoeretan moteltze nabarmenaren itxaropenak eraginda. Horrekin guztiarekin, hamar urteko bono alemanaren errentagarritasuna % 2,57an kokatu da, 29 puntu jaitsi ondoren, eta haren homologoa amerikarra, aldiz, % 3,87an, 37pb jeitsi ondoren. Europar periferiari dagokionez, errentagarritasunen zuzenketak nabarmenagoak izan dira. Espainiako bonuak % 3,28 kotizatzen bukatu du, aurreko hilabetean baino 38 puntu gutxiago. Italiarrak, aldiz % 4,16an kotizatu du, 56 puntu gutxiago. Errenta finko pribatuak, aldiz, bere diferentzialak murriztu direla ikusi du, Europako zorrarekiko, arriskuari beldur gutxiago agertoki batean; eta, aldiz, Euriborra 12 hilabeterako % 3,4tik gora jarri da.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2023ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	2,51	0,38	0,38
	6 HIL.	2,99	0,30	0,30
	12 HIL.	3,41	0,12	0,12
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	2,65	-0,11	-0,11
	5 URTE	2,31	-0,27	-0,27
	10 URTE	2,29	-0,29	-0,29
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	2,91	-0,02	-0,02
	5 URTE	2,93	-0,23	-0,23
	10 URTE	3,28	-0,38	-0,38

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Euroak % 1,48 irabazi dau hilabeteen dolarrekiko, 1,09€/€ inguruan jarriz, bederatzi hilabeteetako maximoa izanik. Tasen igoeren gailurrak, gero eta urrutiago ikusten dena Eurozonan, billete berdearekiko moneta bakarraren indarra ahalbidetu du. Euroa, gainera, yenaren aurrean ere indartu egin da, eta, aldiz, liberaren ondoan oso balio gutxi galdu du. Azkenik, lehengai dagokienez, Txinako berririkiera izan bada ere, hazkunde ekonomikoren mantsotzearen beldurak, petrolioaren prezioa zertxobait altuagoa izatea itxieran, % 0,46 inguru garestiago, upela 85,86\$ arte ordaindu delarik. Bestetik, urreak balioa irabazi du berriz, % 5tik gora, eta hilaren bukaeran 1.900\$/ontza jarri da.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg